

(n), (e)ko (a)ren (a)

Honako hauek BILDU DIRA:

Alde batetik, «Mutualia», Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2 zenbakiko mutua (hemendik aurrera «**Mutualia**», «**Mutua**», edo «**Tratamenduaren ARDURADUNA**»); egoitza operatiboa eta jakinarazpenetarako helbidea, Henao kalea 26, 48009 Bilbo; IFZ zenbakia, G 95471165; eta haren izenean eta ordezkari **IGNACIO LEKUNBERRI HORMAETXEA** jauna, adinez nagusia, NAN zenbakia 30.565.289-Z duena eta honi dagokionez helbide bera, MUTUALIAko **zuzendari kudeatzailea** den aldetik, eta bereziki gaituta dagoela haren alde emandako ahalorde-eskriturako merezimenduetan.

Bestetik _____, (hemendik aurrera, «**Hornitzailea**», «**Enpresa**», «**Enpresa hornitzailea**» «**Esleipenduna**» edo «**Tratamendu-ERAGILEA**»), helbidea _____ duena, IFK-zenbakia _____ duena eta haren ordezkari _____ jauna/andrea izanik, adinez nagusia, eta NAN/Pasaporte/AIZ zenbakia _____ duena, (adierazi ordezkaritza-postua/kargua) den aldetik.

Honako hau ADIERAZI DUTE:

- a) Bi aldeek kontratu-harreman bat dutela sinatua eta indarrean, sinatutako kontratuaren arabera; horren arabera, **datu pertsonalen tratamendua** beharrezkoa dela edo izan daitekeela. Horri dagokionez, ezagutzen dituztela **arau hauetan aurreikusitako betetzeko eskakizunak**: DATUAK BABESTEARI BURUZKO 2016/679 (EB) ERREGELAMENDU OROKORRA, 2016ko apirilaren 27koa (aurrerantzean, DBEO); 3/2018 LEGE ORGANIKOA, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (aurrerantzean, DBEDBLO), eta 4/2019 ERREGE LEGE DEKRETUA, urriaren 31koa, zeinaren bidez presako neurriak hartzen baitira segurtasun publikoko arrazoiengatik administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan, bai eta aplikatu beharrekoak, osagarriak, garapenekoak edo lotutakoak diren gainerako arauak ere; era berean, aplikatu beharrekoa izan daitekeenean, BATZORDEAREN 2021eko ekainaren 4ko 2021/915 (EB) BETEARAZPEN-ERABAKIAREN (2021-06-07ko EBAO) bidez argitaratutako kontratu-klausulak ere bai. Bi aldeak ados daude datuak babesteari buruzko estatutoko eta Europar Batasuneko araudiaren mende jartzeko betebeharra OINARRIZKO kontratu-betebeharra dela esatean.
- b) Bi aldeak lotzen dituen kontratu (nagusia) betearazteak berekin badakar Mutualiaren kontura datu pertsonalak tratatzea (HORNITZAILEAK), eta datu horien ARDURADUNA Mutualia bada, kasu horretan HORNITZAILEA **TRATAMENDU-ERAGILE** izango da, DBEOren 28. artikulua eta DBEDBLOren 23. eta 33. artikuluen arabera. Kasu horretan, datu horietara irispidea izatea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, baldin eta lehen adierazitako arauetan aurreikusitakoa betetzen bada; horretarako, **KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI ETA DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATU** hau hitzartu dute, honako hauen arabera:

KLAUSULAK

1.- AURRETIKOAK

- 1.1. Bi aldeak lotzen dituen kontratu (nagusia) betearazteak berekin badakar Mutualiaren kontura datu pertsonalak tratatzea (adjudikaziodun HORNITZAILEAK), eta datu horien ARDURADUNA Mutualia bada, kasu horretan HORNITZAILEA **TRATAMENDU-ERAGILE** izango da, DBEOren 28. artikulua eta DBEDBLOren 28. eta 33. artikuluen arabera.
- 1.2. Kontratu honen xedea da **DBEOren 28. artikulua 3. eta 4. paragrafoak** betetzen direla ziurtatzea. Kontratu honen goiburuan identifikatutako tratamenduaren arduradunak eta tratamendu-eragileak baimena eman dute kontratu honen bidez elkarri lotzeko, DBEOren 28. artikulua arau horiek betetzen direla bermatzeko.

1.3. **Klausula hauek kontratu nagusiaren parte diren datu pertsonalen tratamenduari aplikatuko zaizkio.** ERANSKINEAN zehazten dira -tratamendu-eragileak arduradunaren kontura egiten dituen tratamendu-eragiketak eta tratatzen dituen interesdunen eta datu pertsonalen kategoriak. ERAGILEAK datuak tratatzeko duen **epea** bat etorriko da kontratu nagusiaren indarraldiarekin/betetzearekin, salbu eta, aplikatu beharreko araudia betez, epe luzeagotan iraun behar badute, 2.7 klausulan aurreikusitakoaren arabera.

1.4. Kontratu honek **ez ditu eragotziko ARDURADUNAK DBEOren arabera dituen betebeharrak guztiak.**

1.5. Aldeek konpromisoa hartzen dute kontratu hau ez aldatzeko, ERANSKINEAN informazioa gehitzeko edo eguneratzeko izan ezik. Hargatik aurrekoa eragotzi gabe, aldeek erabaki ahal izango dute **eranskin batean** beste klausula edo berme gehigarri batzuk gehitzea, baldin eta, zuzenean edo zeharka, kontratu honen kontrakoak ez badira eta interesdunen oinarrizko eskubide edo askatasunei kalterik egiten ez badiete.

1.6. Kontratu honetan DBEOren definitutako **terminoak** erabiltzen direnean, erregelamentu horretan duten esanahi bera dutela ulertuko da. Kontratu hau erregelamentu horretako xedapenen arabera irakurri eta interpretatu beharko da. Ezingo da kontratu honen **interpretaziorik** egin, baldin eta Erregelamentu horretan ezarritako eskubide eta betebeharrak edo interesdunen oinarrizko eskubide edo askatasunei kalte egiten badiete. **Kontraesanik baldin badago** kontratu honen eta kontratu hau hitzartzen edo aplikatzen hasten den unean aldean artean indarrean dauden akordioen edo kontratuen xedapenen artean, kontratu hau gailenduko da.

1.7. Aldeek kontratu hau betetzen dutela **frogatzeko** aukera izan beharko dute. ERAGILEAK azkar eta modu egokian ebatziko ditu ARDURADUNAK egindako eta kontratu honen araberrako tratamenduarekin zerikusia duten kontsultak. ERAGILEAK arduradunaren esku jarriko du kontratu honetan jasotako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den **informazio** guztia, betebeharrak horiek DBEOtik edo datu-babeseko beste edozein araudi aplikagarritik zuzenean eratorzen badira.

Aurrekoari dagokionez, ARDURADUNAK eskatuta, ERAGILEAK kontratu honek estalitako tratamendu-jarduerekin **auditoretza** egitea baimendu eta lagundu beharko du, arrazoizko tartetan edo ez-betetzeez zantzurik badago. **Azterketa edo auditoretza** bat egiten den erabakitzean, ARDURADUNAK kontuan hartu ahal izango ditu ERAGILEAREN eskuetan dauden **ziurtagiriak**. ARDURADUNAK aukeratu ahal izango du auditoretza bere kabuz egitea edo auditore independente bati baimena ematea. Auditoretzak izan daitezke, halaber, ARDURADUNAREN **areto edo instalazio fisikoak ikuskatzea** eta, hala dagokionean, arrazoizko aurreabisuarekin egitea.

Aldeek **kontrol-agintaritza** eskudunen eskura jarriko dute, haiek eskatuta, klausula honetan aipatzen den informazioa eta, bereziki, auditoretzen emaitzak.

2. Tratamendu-ERAGILEAREN betebeharrak espezifikoak, zeinak betetzeko konpromisoa hartzen baitu.

2.1. ERAGILEAK ARDURADUNAREN **jarraibideak** betez soilik tratatuko ditu datu pertsonalak (barne direla kontratu nagusitik edota kontratazio-espeditenteko Administrazio Baldintza Orokorren eta Partikularren Agiritik edota Preskripzio Teknikoetatik ondorioztatzen direnak, kontratua betetzeari aplikatu dakizkiokeenak). ARDURADUNAK, halaber, jarraibideak eman ahal izango ditu datu pertsonalak tratatzeko aldiaren edozein unetan. Jarraibide horiek dokumentatuta egon beharko dute beti. ERAGILEAK berehala jakinaraziko dio ARDURADUNARI, baldin eta arduradunak emandako jarraibideek, arduradunaren iritziz, DBEO urratzen badute, edo Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean datuen babesaren arloan aplikatu daitezkeen xedapenak urratzen badituzte.

Aurreko guztia aplikatuko da, salbu eta ERAGILEA tratamendura behartuta dagoenean, Batasuneko zuzenbidea edo hari aplikatzen zaion estatu kideren batena betez. Azken kasu horretan, ERAGILEAK tratamenduaren aurreko legezko eskakizun horren berri emango dio ARDURADUNARI, salbu eta araudi horrek informazio hori debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuegatik.

2.2. ERAGILEAK kontratu nagusia betetzearekin zerikusia duten tratamenduaren **helburu zehatzetarako** bakarrik tratatuko ditu datu pertsonalak, edo arduradunaren jarraibide gehigarri jarraituta. Inola ere ez da datu pertsonalen tratamendurik egingo datu horiek jasotzeko xedearekin bateragarriak ez diren helburuetarako edo kontratu

nagusiaren **xedea ez den** beste helburu baterako. Europar Batasuneko zuzenbidearen edo enpresa hornitzaileari aplikatu beharreko estatu kidearen zuzenbidearen arabera, datuen tratamendu-mota jakin eta espezifiko batera behartzen duen kasuetan, baita MUTUALIaren berariazko jarraibideen aurka ere, egoera hori justifikatu egingo da eta MUTUALIari egoera horren berri emango zaio, beharrezkoak diren antolamendu-, lege- eta segurtasun-neurri egokiak hartzeko.

2.3. ERAGILEAK, gutxienez, arriskuari egokitutako datu pertsonalen **segurtasun-maila** bermatzeko **neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak** aplikatuko ditu, honako hauek barne hartuta, besteak beste: a) datu pertsonalak zifratzea eta haiei erreferentzia egiteko **izengoiti bat erabiltzea**; b) tratamendu-sistema eta -zerbitzuen **konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresilientzia** iraunkorra bermatzeko gaitasuna; c) gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero datu pertsonalen **eskuragarritasuna eta irispidea** azkar berrezartzeko gaitasuna; d) tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien eraginkortasuna **aldizka egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko** prozesua.

Segurtasun-mailaren egokitasuna ebaluatzean, bereziki kontuan hartuko dira datu-tratamenduak dituen arriskuak, bereziki (**segurtasunaren urraketen aurkako babesa**) beste modu batean transmititu, kontserbatu edo tratatutako datu pertsonalak **ustekabeen edo legez kontra suntsitu, galdu edo aldatzearen** ondorioz, edo datu horietara **baimenik gabe komunikatzea edo irispidea izatea**.

Segurtasun-maila egokia zehazterakoan, behar bezala hartuko dira kontuan teknikaren egoera, aplikazio-kostuak, tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, eta tratamenduak interesdunentzat dituen arriskuak. Aurrekoa gorabehera, **nolanahi ere**, jarrian ERAGILEAK gutxienez bete behar dituen **gutxieneko segurtasun-neurriak** adierazten dira:

- **Erabiltzailearen baimena:** Datu pertsonaletara irispidea izateko baimena eskatzea, arduradunak balioztatuta. Rolak datuaren konfidentzialtasunaren arabera bereiztea. Baimenetan oinarritutako informazioa eskuratzea mugatzen duten neurri teknologikoak. Informaziorako irispidea duten erabiltzaileen zerrenda. Zerrendaren eguneratzea.
- **Identifikazioa eta baimentzea:** Sartzeko egiaztagiria eskatzea, erabiltzaileak zalantzarik gabe eta modu pertsonalizatuan identifikatzeko, erabiltzailea eta informazio-sistemarako sarbide sendoko pasahitzaren bidez, eta pasahitza aldi berean eskuz eguneratzea. Datu-kategoria berezietarako irispideen erregistro berezia (hala badagokio)
- **Euskarriak:** Datu pertsonalak dituzten euskarriak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda eguneratua eduki beharko da. Segurtasun-neurriak, euskarriak instalazioetatik kanpo lekualdatuz gero, garraioan zehar lapurtzea, galtzea edo behar ez bezala sartzeko saihesteko (esaterako, erakundearen barruan soilik uler daitekeen kanpoko zifratzea edota etiketatzea, baimenik gabe sartzeko eragozte aldera). Memoria-euskarri ateragarrien (USB memoriak, DVDak eta antzekoak) erabilera murriztea
- **Segurtasun-kopiak:** Datu pertsonalen segurtasun-kopiak egiteko prozedurak ezartzea eta aplikatzea, informazioa ez galtzeko edo ez suntsitzeko.
- **Telekomunikazioak eta datuen bidalketa:** Bereziki babestutako datuak (adibidez: osasun-datuak) sare publikoen bidez edo komunikazio elektronikoen haririk gabeko sareen bidez bidaltzen badira, datuen bidalketa horiek **zifratuta** egingo da, edo hirugarrenek informazioa ulertu edo manipulatu ezin dutela bermatzen duen beste edozein mekanismo erabilita.
- **Instalazio eta bulegoetarako irispidea kontrolatzeko neurriak.** Hala badagokio, arduraduna izendatzeko eta irekitzeko gailuen bidez babestuta dauden **zerbitzariak**.
- Gailu eramangarrietan dagoen informazio pertsonalerako irispidea **pasahitzarekin** babestea.
- **Antivirus** eguneratuta eta aldizkako eskaneatzeak dituen. Etengabe eguneratutako **sistema eragilea**
- **Sarearen kanpoaldetik** babestutako informazio-sistemarako **irispidea**, erabiltzaile-identifikazioarekin eta komunikazio zifratuekin. Enpresaren **WIFI** bat badago, segurtasun-neurriak izango ditu

- Aldian behingo langileen **prestatuntza eta kontzientziazioa**, datuen konfidentziasunari eta segurtasunari buruz. Datu pertsonaletara sarbidea duten langileek (bereziki eginkizun sentikorrek betetzen dituztenek) **konfidentziasun-akordio idatziak** sinatzen dituzte.
- **Paperezko euskarriak edo dokumentuak kudeatzea**: Tratamendu-ERAGILEAK **paperezko formatuan datu pertsonalak dituzten dokumentuak eta euskarriak** gorde, artxibatu, zaindu edo lekualdatu behar baditu, honako segurtasun-neurri hauek aplikatu beharko ditu:
 - o Dokumentuak biltegitratzeko baliabideek/gailuek irekitzeko mekanismoak dituzte, hala nola giltza edo txartel elektronikoak, edo baimenik ez duten pertsonak irispidea izatea eragozten duen beste edozein neurri.
 - o "*Mahai garbien*" politika (ezarria)
 - o Berrikuspen- edo izapidetze-prozesuan dauden euskarriak edo dokumentuak haren ardurapeko langileek zaindu beharko dituzte, eta une oro eragotzi beharko dute baimenik ez duen pertsona batek euskarri edo dokumentu horiek eskuratzea.
 - o Dokumentazioa fisikoki lekualdatzen den bitartean, informazioa baimenik gabe irispidea izatea edo manipulatzeko eragozteko neurriak hartu beharko dira (edukiontzia opakuak eta eta hirugarren batek –giltza edo sistema baliokidea duena– babestu eta eskuratu ezin dituen garraio bideak).
 - o Paperezko datuak suntsitzeko, dokumentu-birringailuak erabiliko dira, datu pertsonalak identifikatzea ahalbidetzen duen aurreko egoera batera berreraikitzea ezinezkoa izan dadin.

Tratamenduak **datu pertsonal sentikorrei** eragiten badie (jatorri etnikoa edo arraza, iritzi politikoak, sinesmen erlijioso edo filosofikoak, sindikatu-afiliazioa, pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzeko datu genetikoak edo datu biometrikoak, pertsona fisiko baten osasunari buruzko datuak, bizitza sexualari edo orientazio sexualari buruzko datuak, edo kondena eta arau-hauste penalei buruzko datuak), ERAGILEAK murrizketa espezifikoa eta/edo berme gehigarriak aplikatuko ditu, hala badagokio.

2.3. puntu honetan jasotako betebeharrak guztiekin dagokienez, **ERAGILEAK segurtasuneko neurri teknikoak eta antolaketa-neurrien maila egokia betetzen duela ulertuko da, betiere ISO 27001 motako Informazioaren Segurtasunaren ziurtagiria (kanpoko auditoretza-erakunde batek emana) edo baliokidea badu, edota bere erakundearen **Segurtasun Eskema Nazionala (SEN)** betetzen duela egiaztatzen badu, betiere kontratuaren xede den zerbitzua ziurtagiri horren irismenaren barruan badago. Kasu horretan, ARDURADUNAK ziurtagiri horiek agiri bidez egiaztatu ahal izango ditu, eta ziurtagiri horiek indarrean egon beharko dute kontratuak irauten duen bitartean.**

2.4. ERAGILEAK eta haren langileek erabateko **konfidentziasuna** mantendu beharko dute kontratua gauzatzeko irispidea duten datu pertsonalei buruz, bai eta bere tratamenduaren ondoriozkoen buruz ere, edozein euskarritan lortu direla ere. Betebeharrak hori esleipendunaren kontura tratamenduaren edozein fasetan esku har dezakeen pertsona orori dagokio, eta esleipendunaren betebeharrak da bere mende dauden pertsonen **konfidentziasun-betebeharrak** hori irakastea, bai eta betebeharrak horri eustea ere, nahiz eta zerbitzua amaitu edo enpresatik bereizi.

ERAGILEAK tratatutako **datu pertsonaletarako irispidea** emango die soilik langileei edota erakundearen kideei/langileei, kontratua (nagusia) gauzatzeko, kudeatzeko eta haren jarraipena egiteko behar-beharrezkoa den neurrian. Arduradunak bermatuko du jasotako datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konfidentziasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen dutela edo estatutupeko konfidentziasun-betebeharrak baten mende daudela.

Bereziki sentikorrek diren datuen tratamenduen kasuan ere, edota administratzaile-pribilegioak dituzten datuak edota Mutualiako Informazio-sistematan mantentze/garapen teknologikoko pribilegioak dituzten datuak eskuratu edo tratatzen direnean (*in situ* edo urrutitik), Mutualiak zuzenean eskatu ahal izango die ERAGILEAREN langileei/laguntzaileei berariazko konfidentziasun-akordio idatziak sinatzea eredu propioetan, langile horiek datuetara irispidea izateko aurretiazko baldintza gisa.

2.5. ERAGILEAK eta haren langileek **ezin izango dizkiete hirugarrenei datu pertsonalak jakinarazi edo zabaltu, salbu eta**, Europar Batasuneko edo aplikatu beharreko estatu kideko zuzenbidearen arabera, ERAGILEARI aplikatzekoa zaion zuzenbidearen arabera, jakinarazpen hori egitera behartzen edota juridikoki babesten duenean.

- 2.6. ERAGILEAK Mutualiari jakinarazi beharko dizkio **datuak babesteko** bere **ordezkariarekin** harremanetan jartzeko datuak (legez nahitaezkoa delako edo borondatez erabakitakoa izateagatik izendatua badu), eta hori dokumentu honen ERANSKINEAN beteko da.
- 2.7. **Behin kontratu-prestazioa amaituta**, arduradunak eskatuta, ERAGILEAK erantzulearen kontura tratatutako datu pertsonal guztiak **ezabatuko** ditu eta erantzuleari egiaztatuko dio hori egin duela; **edo** datu pertsonal guztiak arduradunari **itzuliko** dizkio eta dauden **kopiak ezabatuko ditu**; hori guztia, **salbu eta**, EBko edo estatu kideko zuzenbidearen arabera ERAGILEARI aplikatu behar zaion arauaren arabera, arduradunak gorde behar baditu. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta gordeko dira, behar den gutxieneko denboran, eta modu seguruan eta behin betiko ezabatuko dira epe horren amaieran, legez suntsitzea bidezkoa denean. Datuak suntsitu edo itzuli arte, eragileak klausula-dokumentu hau betetzen dela bermatzen jarraituko du.
- 2.8. Tratatu beharreko datu pertsonalak ERAGILEAK eskuratu ahal izango ditu, **agintari judizial eta administratibo eskudunek irispidea izan dezaten**, Europar Batasuneko zuzenbideak edo aplikagarri zaion estatu kidekoak hala xedatzen duenean, edo agindu administratibo/judizial bidez.
- 2.9. Kontratu hau betetzeagatik **identifikazio elektronikoko** neurriak erabili behar diren kasuetan, neurri horiek agintaritza eskudunak zehaztuko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera. Kontratu honetatik edo nagusitik eratorritako betebeharrak betetzeko, ezin izango da **banatutako erregistro-teknologiarik** erabili, horiek legez baimenduta/araututa ez dauden bitartean.
- 2.10. ERAGILEAK azkar **jakinaraziko** dizkio ARDURADUNARI (jaso eta hiru (3) egun baliodun igaro baino lehenago, nolana ere) **interesdunengandik jasotzen dituzten eskubide-eskaerak eta/edo -baliatzeak**. Ez dio eskaera horri bere kabuz erantzungo, arduradunak horretarako baimena eman ez badio. ERAGILEAK bere betebeharrak betetzen **lagunduko** dio ARDURADUNARI, interesdunen eskubideak baliatzeko eskaerei erantzutean, tratamenduaren izaera kontuan hartuta. Betebehar horiek betetzean, ERAGILEAK arduradunaren jarraibideak beteko ditu.
- 2.11. ERAGILEAK honako betebehar hauek betetzen direla bermatzen ere **lagunduko dio ARDURADUNARI** (tratamenduaren izaera eta ERAGILEAK duen informazioa kontuan hartuta):
- a) tratamendu-eragiketek datu pertsonalen babesean duten **inpaktu-ebaluazioa** egiteko betebeharra, tratamendua mota batek pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako arrisku handia ekar dezakeenean.
 - b) tratamenduari ekin aurretik, **kontrol-agintaritza eskudunei kontsulta egiteko** betebeharra, baldin eta datuen babesari buruzko eraginaren ebaluazio batek erakusten badu tratamenduak arrisku handia ekarriko lukeela arduradunak tratamendua arintzeko neurririk hartzen ez badu;
 - c) datu pertsonalak zehatzak eta eguneratuak direla bermatzeko betebeharra, eta arduradunari berehala jakinaraztea ERAGILEA ohartzen bada tratatzen ari den datu pertsonalak okerrak direla edo zaharkituta geratu direla;
 - d) **DBEOren 32. artikuluan** jasotako betebeharrak.
- 2.12. **Datu pertsonalen segurtasuna urratzen bada, ERAGILEAK ARDURADUNAREKIN lankidetzan jardungo du**, eta DBEOren 33. eta 34. artikuluek esleitzen dizkioten betebeharrak betetzen lagunduko dio, hala badagokio, tratamenduaren izaera eta ERAGILEAK duen informazioa kontuan hartuta.

ARDURADUNAK tratatutako datuei dagokienez datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, ERAGILEAK arduradunari lagunduko dio honetan:

a) DBEOren arabera hala badagokio, kontrol-agintaritza eskudunei jakinaraztea datu pertsonalen segurtasuna urratu dela, bidegabeko atzerapenik gabe, horren berri izan ondoren, hala badagokio, Datuak Babesteko araudi aplikagarriaren arabera.

b) DBEOren 33. artikulua 3. paragrafoarekin bat etorritik, arduradunaren jakinarazpenean agertu beharko den informazio hau biltzea. Informazio horrek, gutxienez, honako hauek jasotzeko ditu:

- 1) datu pertsonalen izaera, baita, ahal denean, kaltetutako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua, bai eta kaltetutako datu pertsonalen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua ere;
- 2) datu pertsonalen segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioak;

3) tratamenduaren arduradunak datu pertsonalen segurtasunaren urraketa konpontzeko hartutako edo proposatutako neurriak, eta, hala badagokio, balizko ondorio negatiboak arintzeko hartutako neurriak. Informazio guztia aldi berean ematerik ez dagoen heinean, hasierako jakinarazpenean une horretan eskura dagoen informazioa emango da, eta, jaso ahala, informazio gehigarria behar ez bezalako atzerapenik gabe emango da.

4) DBEOren 34. artikulua arabera hala dagokionean, datu pertsonalen segurtasunaren urraketa interesdunari bidegabeko atzerapenik gabe jakinarazteko betebeharra betetzea, segurtasuna urratzeak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako arrisku handia ekar dezakeenean.

ERAGILEAK tratatutako datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, horrek ARDURADUNARI jakinaraziko dio bidegabeko atzerapenik gabe (hori jasotzen denetik 24 ordu igaro baino lehen), eragileak horren berri izan ondoren. Jakinarazpen horretan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira:

- a) segurtasunaren urraketa izatearen deskribapena (ahal denean, interesdunen eta ukitutako datuen erregistroen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua barne);
- b) datu pertsonalen segurtasunaren urraketa buruzko informazio gehiago lor daitekeen harremanetarako gune bateko datuak;
- c) izan ditzakeen ondorioak eta segurtasunaren urraketa aurre egiteko hartutako neurriak edo proposamenak, ondorio negatiboak arintzeko hartutako neurriak barne.

Informazio guztia aldi berean ematerik ez dagoen heinean, hasierako jakinarazpenean une horretan eskura dagoen informazioa emango da, eta, jaso ahala, informazio gehigarria behar ez bezalako atzerapenik gabe emango da.

2.13 ERAGILEAK MUTUALIAren kontura egindako **tratamendu-jardueren erregistroa** eramango du.

2.14 ERAGILEAK **ERAGILEORDEA azpikontratatu** ahal izango du soilik kontratu honen arabera erantzulearen kontura egiten dituen tratamendu-lanetarako, ARDURADUNAK alde aurretik **idatziz emandako berariazko baimenarekin**. ERAGILEAK ERAGILEORDEA kontratatu baino gutxienez hamar (10) egun baliodun lehenago aurkeztuko du baimen espezifikoaren eskaera, arduradunak eskaera ebatzi ahal izateko beharrezko informazioarekin batera. Era berean, ERAGILEAK ARDURADUNARI jakinaraziko dio beste azpikontratista batzuk sartzerakoan edo ordezkatzekoan aurreikusitako edozein aldaketa, eta, horrela, ARDURADUNARI aukera emango dio klausula honetan aurreikusitako baimena emateko. Aipatutako edozein kasutan, ARDURADUNAKERAGILEAREN eskaerari berariaz erantzun ez izana azpikontratazioa ez baimentzearen edo azpikontratazioan aldaketak egitearen baliokidea izango da.

ERAGILEAK ERAGILEORDE bat kontratatzen duenean tratamendu-jarduera espezifikoak egiteko (ARDURADUNAREN kontura), kontratu baten bidez egingo du, eta kontratu horren ondorioz, arduradunari ezarritako betebeharrak ezarriko dizkio, funtsean, ERAGILEORDEARI datuak babesteko kontuetan. ERAGILEAK ziurtatuko du ERAGILEORDEAK kontratu honen, DBEOren eta, hala badagokio, datu-babeseko gainerako araudiaren arabera dituen betebeharrak betetzen dituela. Hiru aldeak (arduraduna, eragilea eta eragileordea) ados jarri ondoren, betebeharrak hori kontratu honetan xedatutakoari ATXIKITZEKO formularen bidez ere bete ahal izango da.

ERAGILEAK ERAGILEORDEAREKIN egindako kontratuaren kopia bat emango dio ARDURADUNARI, hark eskatuta, baita horren ondorengo edozein aldaketarena ere. Merkataritza-sekretuak edo bestelako informazio konfidentziala (hala nola datu pertsonalak) babesteko beharrezkoa den heinean, ERAGILEAK kontratuaren testua garbitu ahal izango du kopia partekatu aurretik.

ERAGILEAK erabat erantzule izaten jarraituko du ARDURADUNAREN aurrean, eragilearekin duen kontratuak ERAGILEORDEARI ezartzen dizkion betebeharrak betetzeari dagokionez. ERAGILEAK arduradunari jakinaraziko dio ERAGILEORDEAK kontratu horrek esleitzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu.

Bereziki, ERAGILEAK (enpresa esleipenduna) adierazi beharko du informazioa datu pertsonalekin bildu, biltegiatu, tratatu eta kudeatzeko beharrezkoak diren baliabideak edota zerbitzuak azpikontratatzeko asmoa duten, edo horiei lotutako beste edozein zerbitzu (batez ere, zerbitzu horiek "**cloud**" edo "**hodeiko**" **sistemetan** azpikontratatzea aurreikusitako bada). Kasu horretan, zerbitzua eman behar zaien enpresa azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoko baldintzak ziurtatu beharko dira, eta horiek kontratu honetan xedatutakoa betetzen dutela eta aplikagarria zaiela egiaztatu beharko da, bai eta betebeharrak hori OINARRIZKO kontratu-betebeharra dela ohartarazi beharko da ere. Horretarako, kontratu hau sinatzen duen enpresa esleipendunak zerbitzariak non kokatuko diren, zerbitzari

lotutako zerbitzuak nondik emango diren eta indarreko kontratuan edozein aldaketa egiten bada jakinarazi beharko du. Aurreko informazio guztia dokumentu honen ERANSKINEAN beteko da.

- 2.13. Beharrezkoa bada eta tratamendu-ERAGILEAK **urruneko sarbideak** baditu MUTUALIAREN informazio-sistemetara, ERAGILEAK ez du aprobetxatuko ematen duen zerbitzua dela-eta datu pertsonaletara duen irispiderik edo tratamendurik datu horiek erabiltzeko, tratatzeko edo lagatzeko, arlo horretan indarrean dagoen legeria urratuz, ez eta emandako zerbitzua garatzeko eta betetzeko beharrezkoak ez diren helburuetarako ere, eta hertsiki beteko ditu tratamenduaren ARDURADUNAREN jarraibideak.
- 2.14. Eragileak **datuak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzeko**, ARDURADUNAREN jarraibide dokumentatuak bete beharko ditu, edo, bestela, arduraduna zein estatu kideri lotuta dagoen, Batasuneko edo estatu horretako zuzenbideak berariaz ezarritako eskakizunari jarraitu beharko dio. Transferentziak DBEOren V. kapituluaren arabera egingo dira.

ARDURADUNA ados dago, ERAGILEAK kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera **ERAGILEORDE** batengana jotzen duenean tratamendu-jarduera espezifikoak egiteko (ARDURADUNAREN kontura) eta jarduera horiek datu pertsonalak transferitzea dakartenean DBEOren V. kapituluaren zentzuan, ERAGILEAK eta ERAGILEORDEAK V. kapitulu hori betetzen dela bermatu ahal izatearekin, Europako Batzordeak DBEOren 46. artikulua 2. paragrafoari jarraikiz onartutako **ereduzko kontratu-klausulen** bidez, betiere ereduzko kontratu-klausula horiek erabiltzeko baldintzak betetzen badira.

Hala eta guztiz ere, kontratu nagusia gauzatzeko tratamendua beharrezkoa bada, **Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileen datuak** biltzeko, biltegitratzeko, prozesatzeko eta kudeatzeko informazio- eta komunikazio-sistemak, bai eta datu pertsonalen tratamendua ere, **Europar Batasunaren lurraldearen barruan** kokatu eta eman beharko dira. Datu horiek ezin izango dira hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitu, Europako Batzordearen egokitzapen-erabaki baten xede izan direnak izan ezik, edo nazioarteko betebeharrak betetzeak hala eskatzen duenean; gainera, betebeharrak hori oinarritzeko kontratu-betebeharraren izaera duela ohartaraziko da.

HIRUGARRENA. - LEHEN eta BIGARREN klausulen azken xedapen komunak:

- 3.1 Hargatik DBEOn xedatutakoa eragotzi gabe, **tratamendu-ERAGILEAK kontratu honek esleitzen dizkion betebeharrak betetzen ez baditu, ARDURADUNAK ERAGILEARI agindu ahal izango dio datu pertsonalen tratamendua etete** hari eta baldintza-agiri hau berriro bete arte, edo kontratua (nagusia) ebatzi arte. ERAGILEAK aurrez (48 ordu igaro baino lehen) jakinaraziko dio ARDURADUNARI edozein arrazoiengatik kontratu hau bete ezin badu.
- 3.2 **ARDURADUNAK kontratua (nagusia) ebazte** ahalmena izango du, kontratu honen arabera **datu pertsonalak tratatzeari dagokionez**, honako kasu hauetan:
- 1) eragileak, aurreko paragrafoaren arabera, eten egin badu datu pertsonalen tratamendua, eta kontratu hau ez bada berriro betetzen arrazoizko epe batean, eta, nolahi ere, hilabeteko (1) epean, kontratua eten denetik zenbatzen hasita;
 - 2) ERAGILEAK kontratu hau edota DBEOK esleitzen dizkion betebeharrak funtsean edo etengabe betetzen ez dituztenean
 - 3) ERAGILEAK ez badu betetzen jurisdikzio-organo eskudun baten edo kontrol-agintaritzaren eskudunen ebazpen lotesle bat, kontratu honek edota DBEOK esleitzen dizkien betebeharrak dagokienez.
- 3.3. **ERAGILEAK kontratua suntsiarazte** ahalmena izango du **datu pertsonalen tratamenduari dagokionez**, kontratu hau betez, baldin eta, ARDURADUNARI jakinarazi ondoren haren jarraibideek kontratu honen 2.1 klausulan aurreikusitakoaren arabera eskatzen diren baldintza juridikoak urratzen dituztela, ARDURADUNAK berriro adierazten badu jarraibide horiek bete behar direla.
- 3.4. **Behin kontratua suntsiarazita**, ARDURADUNAK eskatuta, ERAGILEAK ezabatu egingo ditu arduradunaren kontura tratatutako datu pertsonal guztiak, eta arduradunari egiaztatuko dio hori egin duela; edo **datu pertsonal guztiak ARDURADUNARI itzuliko dizkio eta dauden kopiak ezabatuko ditu; salbu eta** Batasuneko edo estatu kideetako

zuzenbideak datu pertsonalak gordetzeko eskatzen badu. Datuak suntsitu edo itzuli arte, eragileak klausula-agiri hau betetzen dela bermatzen jarraituko du.

- 3.5. Dokumentu honetan jasotako betebeharrak eta prestazioak ez dira kostubidezkoak/ordainduak, eta ez dute sortzen kontratuan edota baldintza-agirietan/dokumentuetan jasotakoez bestelako eskubide edo betebeharrak ekonomikorik, datuak tratatu behar diren zerbitzuaren xedearen kontratu-balioa dutenak.
- 3.6. Dokumentu honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitakoak zerbitzua ematearen **iraupen** bera izango du, eta, hala badagokio, luzatu egingo da, zerbitzuaren iraupen bereko aldietarako. Hala ere, kontratua amaitzean, **sekretu-eginbeharrak** indarrean jarraituko du, denbora-mugarik gabe, kontratua gauzatzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.
- 3.7. Mutuak beretzat gordetzen du legezko ekintza eta neurri guztiak** (zibilak, lanekoak, administratiboak edota penalak) baliatzeko eskubidea, bere defentsarako edota dagozkion erantzukizunak eskatzeko/errepikatzeko, tratamendu-ERAGILEAK bere betebeharrak betetzen ez baditu.

ERANSKINA

Zerbitzuaren deskribapena eta datuen tratamenduaren izaera, helburua eta xedea (deskribatu labur-labur)

<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>
Datuak Babesteko Ordezkariekin (DBO) harremanetan jartzeko datuak
<p>MUTUALIAko Datuak Babesteko Ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak: dpd@mutualia.es . ERAGILEAREN datuak babesteko ordezkariekin (DBO) harremanetan jartzeko datuak:@..... (Datu hori betetzen ez bada, ulertuko da ERAGILEAK ez duela nahitaz DBOrik eduki behar, eta ez duela bere borondatez izendatu)</p>
Tratatzen diren datuak dituzten pertsona interesdunen kategoriak (markatu X batez egokia(k) d(ir)ena(k))
<p><input type="checkbox"/> LANGILEAK EDO PAZIENTEAK (Mutualiak babestutako langileak: soldatapekoak edo autonomoak)</p> <p><input type="checkbox"/> MUTUALIAKO PERTSONAK (plantillakoak edota gobernu-/partaidetza-organoetako ordezkariek)</p> <p><input type="checkbox"/> BESTE ENPRESA/ERAKUNDE/ENTITATE BATZUETAKO PERTSONAK (plantillakoak edota ordezkariek)</p> <p><input type="checkbox"/> BISITARIAK (instalazioetara sartzeko kontroletan)</p> <p><input type="checkbox"/> HAUTAGAIK (pertsonak hautatzeko/kontratatzeko prozesuetan, adibidez: CV)</p> <p><input type="checkbox"/> RAKASLEAK EDO IKASLEAK (prestakuntza-ekintzetan)</p> <p><input type="checkbox"/> BESTE PERTSONA BATZUK (adierazi nor).....</p>
Tratatutako datuen kategoriak (markatu X batez egokia(k) d(ir)ena(k))
<p><input type="checkbox"/> IDENTIFIKAZIO-DATUAK (Adib.: izena, abizenak, NAN zenbakia/Pasaporte/GS/Osasun-txartela/Egoiliar-txartela/Gidabaimena, IP helbidea, eskuz idatzitako sinadura edota sinadura elektronikoa...)</p> <p><input type="checkbox"/> HARREMANETARAKO DATUAK (Adib.: posta-helbidea/helbide elektronikoa, telefono-zenbakia...)</p> <p><input type="checkbox"/> EZAUGARRI PERTSONALAK (Adib.: sexua; egoera zibila; nazionalitatea, adina; jaioteguna eta jaioterria; ama-hizkuntza; altuera; pisua; ezaugarri antropometrikoak; marka fisikoak...)</p> <p><input type="checkbox"/> FAMILIA/GIZARTE ARLOKO INGURUABARRAK (Adib.: seme-alaben kopurua, izena eta adina; baimenak, lizentziak eta baimenak; kideak; klub/elkarteetako kide izatea; laguntzak eta beka; egoitza-baimena...)</p> <p><input type="checkbox"/> IRUDI/AHOTS/AUDIO DATUAK (Adib.: irudiak, bideoak... hartu edo grabatzen direnean)</p> <p><input type="checkbox"/> DATU EKONOMIKOAK, TRIBUTARIOAK, FINANTZARIOAK ETA ASEGURUEI BURUZKOAK (Adib.: nominak/soldata-ordainagiriak/kitapenak, zergak, finantza-produktuak, aseguru-polizak, diru-sarrerak; errentak; inbertsioak; kredituak; maileguak; abalak; zerga-kenkariak/-atxikipenak; banku-datuak; jarduera ekonomikoaren eta kaudimenaren datuak; ondare-ondasunak; pentsio- eta erretiro-planak...)</p> <p><input type="checkbox"/> LAN-KONTRATUKOAK (Adib.: enplegua/postua/kargua; lanbide-kategoria edo -taldea; enpresa; nominako datu ez-ekonomikoak; harremanetarako datu korporatiboak; lan-baimena, curriculum vitae...)</p> <p><input type="checkbox"/> AKADEMIKOAK/PROFESIONALAK (Adib.: titulazioak; prestakuntza; lanbide-esperientzia; espediente akademikoak; alta elkargo profesionaletan, sorkuntza artistikoak, literarioak, zientifikoak edo teknikoak, merkataritza-lizentzien titulartasuna, markak, patenteak...)</p> <p><input type="checkbox"/> ADMINISTRARRIAK/JUDIZIALAK (Adib.: administrazio-prozedurak; erreklamazioak eta errekursoak; zehapenak; erregistroak; eskaerak; prozedura judizialak...)</p> <p><input type="checkbox"/> KONDENEN ETA ARAU-HAUSTE PENALEN DATUAK (Adib.: aurrekari penalak, sexu-delituen aurrekari zurtagiria, autoak eta epai penalak...)</p> <p><input type="checkbox"/> GEOLOKALIZAZIOA</p> <p><input type="checkbox"/> BIDEOZAINZA</p> <p><input type="checkbox"/> OSASUNARI BURUZKO DATUAK</p> <p><input type="checkbox"/> DATU BIOMETRIKOAK</p> <p><input type="checkbox"/> DATU GENETIKOAK</p> <p><input type="checkbox"/> IRITZI POLITIKOAK/SINESMEN ERLIJIOSOAK/FILOSOFIKOAK</p> <p><input type="checkbox"/> SINDIKATUAN BAZKIDETZEA</p> <p><input type="checkbox"/> BIZITZA SEXUALARI/ORIENTAZIO SEXUALARI BURUZKO DATUAK</p> <p><input type="checkbox"/> JOKABIDE-EREDUAK/-PROFILAK</p> <p><input type="checkbox"/> BESTE BATZUK (adierazi zein).....</p>
Tratamenduaren izaerari buruzko deklarazioa (markatu X batez egokia(k) d(ir)ena(k))

<p>Adierazi datu pertsonalen tratamendu mota hauetako zein egitea dagoen aurreikusita kontratu nagusia gauzatzean - (markatu X batez egokia(k) d(ir)ena(k))</p> <ul style="list-style-type: none"><input type="checkbox"/> Datuak BILTZEA/ERREGISTRATZEA/GORDETZEA<input type="checkbox"/> Datuen ANTOLAKETA/EGITURAKETA<input type="checkbox"/> Datuak KONTSULTATZEA/ERABILTZEA<input type="checkbox"/> Datuak ALDATZEA/EGOKITZEA<input type="checkbox"/> Datuak KONTSULTATZEA<input type="checkbox"/> TRANSMISIO/INTERKONEXIO BIDEZKO KOMUNIKAZIOA/datuetara IRISPIDEA IZATEKO BESTE MODU BATZUK<input type="checkbox"/> Datuak ATERATZEA<input type="checkbox"/> Datuak PAREKATZEA<input type="checkbox"/> Datuak MUGATZEA<input type="checkbox"/> Datuak EZABATZEA<input type="checkbox"/> Datuen BESTE TRATAMENDU BATZUK
--

Datuak hodeian (hodei konputazioa) tratatzeko zerbitzuak azpikontratatzeari buruzko deklarazioa
<p>Adierazi aurreikusita dagoen ERAGILEAK <i>hodeian zerbitzuak</i> (hodei konputazioa) azpikontratatzea —kontratu nagusiaren xede diren datuak tratatzeko— (markatu X batez egokia dena)</p> <ul style="list-style-type: none"><input type="checkbox"/> BAI<input type="checkbox"/> EZ <p>(<u>Aurrekoari baietz erantzunez gero</u>) Adierazi non kokatuko diren <i>hodeian</i> (hodei konputazioa) zerbitzuak emateko erabiliko diren zerbitzariak (markatu X batez egokia dena eta bete dagokiona)</p> <ul style="list-style-type: none"><input type="checkbox"/> Europako Esparru Ekonomikoaren BARRUAN (Europar Batasuna + Norvegia + Islandia+ Liechtenstein)<input type="checkbox"/> Europako Esparru Ekonomikotik KANPO (kasu horretan, adierazi herrialdea:)

Ados daudela adierazteko, **ERANSKINEKO atal guztiak bete ondoren**, bi aldeek dokumentu hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean (*ut supra*).

MUTUALIA

ENPRESA